



Euskaraldiaren ondorioei eta ikasgaiei hiru begirada

Josu Amezaga



Eskema

- Euskaraldiaren helburuen inguruan
- Ohitura aldaketen inguruko emaitza batzuk
- Ez dakiguna
- Beste emaitza batzuk:
 - Ikusgarritasuna
 - Euskaldun sakabanatu edo apalentzako lagungarri
- Landu daitekeen ildo bat: komunikabideak

Euskaraldiaren helburu nagusia: ohiturak aldatu

Ohiturak aldatzeko abiapuntu ezberdinak:

	Ingurune euskalduna	Ingurune ez euskalduna
Euskaraz gaitasun altua		
Euskaraz gaitasun apala		

Zein egoeratako hiltunen ohiturak aldatu nahi izan ditu Euskaraldiak?

Ohituren aldaketa: emaitza batzuk

- Erabilera handitu egin da: **hiru hilabeteren ostean %6**
- Behar handiena zegoen guneetan lortu da aldaketarik handiena:
 - Euskaraz mintzatzeko gaitasun txikiena duten pertsonak
 - Euskaraz egiteko ohitura txikiena duten pertsonak
 - Gune soziolinguistiko ez euskaldunetan bizi diren pertsonak

Hurrengo kanpaina aztertzeko, gehiago jakin beharko genuke

Gutxi dakigu parte hartu zuten 225.154 pertsonen buruz:

- Zein hizkuntza soslai zuten
- Zein izan z(ir)en beren lehen hizkuntza(k)
- Eta beste

Zer dakigu izena eman ez zutenei buruz?

Izena *	
1. Abizena *	
2. Abizena *	 Bigarren deiturarik ez bada, jarri "-"
Generoa *	- Aukeratu -
Jaiotza-urtea *	- Aukeratu - 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal dute Euskaraldian
Lurraldea *	- Aukeratu -
Telefono zenbakia	
Posta elektronikoa *	 Posta-elektronikorik ez baduzu, hurbileko baten helbide-elektronikoa jarri, bete beharreko datua da eta.
Informazioa jaso nahi dut	☐ Euskaraldiaren inguruko informazioa bideratzeko posta elektronikoa erabiliko dugu, garrantzitsua da informazioa bidaltzeko zure baimena izatea.
DPBLren baldintzak onartzen ditut *	☐ Baldintzak



11 egunetan (azaroaren 23tik abenduaren 3ra)
euskal hiztun guztiei zuri euskaraz egiteko eskatuko diezu.

Erregistratu


Hizkuntza soslaiaren inguruko estimazioak

225.154 partehartzaile. Estimazioak:

- 175.000 euskaldun oso
- 50.000 euskaldun hartzaile

Euskaldun osoen zein eskaldun hartzaileen %15. Estimazioak:

- Euskaldun osoen % 23k hartu zuen parte
- Euskaldun hartzaileen % 11k hartu zuen parte



Euskaraldia errazago iritsi da euskaldun osoengana euskaldun hartzaileengana baino

Lehen hizkuntzaren auzia

- Ikerketa ezberdinen arabera, euskaldunen lehen hizkuntza oso lotuta dago euskararen erabilerarekin

	Euskaldunzaharrak	Euskaldunberriak
Bizitza gehiena euskaraz egiten dute (SIADECO, 2017)	% 72	% 28
Egunero euskarazko komunikabiderik kontsumitzen dute (CIES, 2018)	% 51	% 21

- Arrazoi ezberdinak: gaitasuna, nortasuna, ingurunea, adina...
- Aldagai mugatua da; baina estatistika baliatzea ahalbidetzen du
- Euskaldun osoen % 36 euskaldunberriak dira


Ikusgarritasuna: ikusgarritasuna (txaparen garrantzia)

- Komunikazioaren teoria klasiko bat: Isiltasunaren Espirala
 - Iritzi giroaren garrantzia
 - Hizkuntz giroaren pisua



Beste emaitza batzuk: hiztun sakabanatu edota apalentzako laguntza

- Euskaraz hitz egiteko gai edo ulertzeko diren pertsonak identifikatu
- Euskara maila apalagoa edo ohitura falta dutenek beldurra galtzen hasi



Euskal komunitate trinkotik urrunago daudenak hurbildu


Ildo bat: aurrez aurreko harreman pertsonaletatik
harago: entitateen partehartzea

- Aurrekariak: dendari eta tabernariekin eginiko lanketa
- Proposamen bat: komunikabideetan eta zineman esku hartu

Ikerketa bat: prentsa idatzia eta *Teleberri* Euskaraldian


- Abiapuntua: Gradu Amaierako Lana, Behategia-EHU (Ziortza Alvarez, 2018)
- Helburu nagusia: gaztelera hutsezko edo gaztelera nagusiko egunkariak eta *Teleberrik* Euskaraldian euskara gehiago erabili ote duten aztertu
- Metodologia:
 - 1. neurketa: Euskaraldiaren aurreko 11 egunetan
 - 2. neurketa: Euskaraldiaren 11 egunetan zehar
 - 3. neurketa: Euskaralditik 4 hilabetera, 11 egunetan zehar

Testuingurua: irakurleen eta ikusleen hizkuntz soslaia




Iturria: Alvarez, 2018

Zenbaketaren emaitzak: euskarazko edukien presentzia



Iturria: Alvarez, 2018

Zenbaketaren emaitzak: euskararen presentzia *Teleberrin*



Iturria: Alvarez, 2018

Lanaren ondorio nagusiak

- Arloa aurrez landu ez den arren, komunikabideak nolabait inplikatu egin dira Euskaraldian
 - Esku hartzeko aukerak egon daitezke
- Euskaraldiaren aurrekanpaina ere eraginkorra izan dela dirudi:
motorrak berotzen efektua
 - Bestelako eremuetan ere (aurrez aurreko harremanetan adibidez) gertatu ote den jakin beharko litzateke
- Komunikabideek oro har zer hobetu handia dute
 - Bide berriak probatu eta beldurra astintzeko aukera dago

Lan ildo posibleak

- Komunikabideak gonbidatu hurrengo Euskaraldian *ahobizi* izan daitezzen
 - Formulak bilatu
 - Laguntza eta formazioa eman
- Zinema ere, *ahobizi*
 - Irisgarritasunerako baliabideak erabili euskara irisgarri egiteko
 - Erdara baliatu euskararen alde?



Euskaraldiaren ondorioei eta ikasgaiei hiru begirada

Josu Amezaga

